

Alex Txikonek amaitutzat emon dau espedizinoa

Hilebete eta erdi baino gehiago bertan egonda, hiru errotazino egin ostean eta 6.400 metrora dagoan C3ra heldu eta gero, urtailaren 13an, baldintzak arriskutsuak zirala eta espedizinokideen bizitzak arriskuan ez ipinteko, amaitutzat emon eban Alex Txikonek Annapumako neguko espedizinoa. Lemoztarrak gainera, beste 9 kide saiatu dira neguan zortzimilako hau egiten; Chhepal, Magkpa, Ang-gyalu, Mayla, MigTemba, Lakpa, Tashi, Moeses, Mattia eta Andres, hain zuzen be. Ondoren, kanpalekuak jaso eta etxera bueltetako prestatzen hasi ziran alpinistak. **10. orrialdea**



Anastasia Atutxak fantasiako eleberria kaleratu dau euskeraz

Soriginaren hil ala biziko sekretua izenpean, 2023ko abenduan argitaratu eban Ibaizabal argitaletxeak Anastasia Atutxa zeanuriztarraren lehenengo liburua euskeraz. XIX. mendeko Euskal Herrian kokatuta, fantasia eta misteriozko kontakizuna da gazteentzat. Baina ez da Atutxak argitaratu dauan fantasiako lehen kontakizuna; izan be, Stacey Keystone ezizenagaz, ingelesez *The Alchemist* eta *Marn Magical School* serieak be publikatu dauk.

Zeanuriztarra Lincolnen (Ingalaterra) bizi da eta Syngenta, nekazaritza arloko enpresan egiten dau behar. Zeanurin egon zan abenduan eta bere liburua aurkeztu eban **8. eta 9. orrialdeak**



Zeanuriko bertso-saioa urtailaren 21 ean izango da

Nerea Ibarzabal, Amets Arzallus, Alaia Martin, Igor Elortza eta Maialen Lujanbio izango dira aurten Zeanuriko frontoian, bertso eskoleak antolatutako 20. edizino honetan. Gai-emoile lanetan, bertsolari, antolatzaile eta Zeanuriko Bertso Eskolako irakaslea dan Eñaut Intxaurreagak jardungo dau. Sarrerak saioa hasi baino ordubete lehenago salduko dira frontoian bertan. **13. orrialdea**



LEMOA

Lemoa Euskerearen Plan Estrategikoa diseinetan hasi da

Lemoako Udalak igazko zemendian hasi eban diseinetako prozesua. Orduan galdetegi bat banandu zan etxeetara eta 88 erantzun jaso ziran. Oin gogoeta mahaia abiatu dabez. Lehenengoa urtailaren 10ean, aisialdia, kultura, kirola eta euskalduntzearen gainekoa izan zan. **7. orrialdea**



AREATZA

Autobus geraleku barria ipini dabe

Sakramentinoetan, Bainuetxe aurrean dago geraleku barria. Areatzako Udala Bizkaiko Foru Aldundiagaz alkatu zan igazko udan Bizkaibuseko autobus geralekuen gainean berba egiteko. Izan be, bagilean 100 herritar inguruk Udalari, bainuetxe inguruan autobus geraleku barria ipintea eskatu eutsien. Herriko geraleku batzuetan markesinak ipintea be berbatu zan. **5. orrialdea**



ARRATIA, ZEBERIO

Korrikaren ibilbidea emon dau jakitera AEK-k

Martiaren 22an, Arratiara Zeberio-tik sartuko da 23. Korrika, 13:39an. Zeberio-Artea-Areatza-Artea-Aran-tzazu-Igorre-Dima-Igorre-Lemoa ibilbidea egin eta gero, 17:35 aldera urtengo da Durangalderantza. Harro Herri lemapean martiaren 14an abiatuko da Korrika Irunetik, 11 egunetan 2.700 kilometro egin eta Baionan martiaren 24an amaituteko.

Azterketak Euskeraz kolektiboa omenduko dau aurtengo Korrikak, ikasle eta guraso honeek, euskerearen alde egingadako hautuagaitik.


Kilometroak zezeilaren 1etik aurrera erosi ahal izango dira AEKn. **5. orrialdea**

Literatura txokoa

GEURE IPUINAK

Danontzako ipuinak, askotarikoak. Ipuinak mundu osoan ibili dira bolo-bolo, eta, sarri, nahastu jakuz geure garun eta buruetan, bardin Asia, Europa ala Afrikan. Oin dala urte batzuk, hamarkada pare bat be esan geinke, Xabier Etxaniz Erlek batu ebazan gure inguruko kontakizun bertakounibersalak. Lehen supazterean leiduten ziranak, gaur Jokin Mitxelenak irudiz hornidua izan daitezdan danon etxeetan. Aspal-diko edizinoa dakartsuegu, baina badira zimelduten ez diran lorak. Hau bat. Bere hosto ugariak batzean aritu ziran biltzaila asko. Hareetako batek, Wentworth Websterrek hala esan euskun "harro gengokez ipuin honeek jasotean izandako atsegin handia

baldin balebe irakurleek ipuinak irakurtean". Websterregaz bate-ra, Resurreccion Maria de Azkue, Aita Barandiaran, Cerquand ala Barbier izan dira ipuin honeek ahozko tradizionetik paperera iltzatu dabezenak. Euskalki desbardinetan egozanan batuan ipini, jatorrizko euskerearen freskotatuna, aberastasuna eta edertasuna ahalik eta ondoen gordeaz, hori da Xabier Etxanizen asmoa liburu honetan. Honeetako kontu batzuk oso edizino arraro edo beren-beregi adituentezako ziran bildumetan bakarrik topau eitekezan, eta hain zuzen, hutsune hori betetea dau helburu *Geure ipuinak*-ek. Mundua gurean, gu munduan lelopean, beste herrialde batzuetako ipuinak antzeko-



Xabier Etxaniz Erle

Ilustrazioak: Jokin Mitxelena

Geure ipuinak

Pamiela argitaletxea, 2000

272 orrialde

tasun ugari dagozala jaubetuko gara, izan be, gizaki guztiok behar doguz ipuinak, bildurrak uxatuteko, barre egiteko, ikasgai moralak hedatuteko... Holan ba, liburu honek gida moduan funtzionau leike, behin eta barriz konsultauko dogun iturri oparoa.

@fantomastxiki

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urtailaren 15etik 21era

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 22tik 28ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 29tik zezeilaren 4ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzino:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXXIX). Kale berbakunea sustatu guran

URTE BARRI

- Beste urte bat hasi **juk!!**
- 2024... kotxeak hegaz **ibilikoak** esaten **ginoan** txikitan!!
- Akordetan **haz?**
- Enok** akordauko ba!!
- Hori **eztok** oindino pasau baina beste gauza batzuk bai gero!!
- Internet barik bizi **gintzoazan** sasoi baten...
- Eta hori egongo **zoanik ezkinan** imajinatu.
- Horretaz aparte be Martitz-era espazio ontziak agindu gura **jauriezak**.
- Giza itxurako robotak saldu behar **jozak** Teslak.
- En fin... *regreso al futuro...*

ERETXIA

Judutarrak ez, sionismoa da genozida dana!

2023ko urri bigarrenaren 7tik sionistak Gaza suntsitzen dabiz. II. Mundu Gerratik proportzioan emon dan genozidiorik handiena. Hiru hilebetetan 24.000 hildako, eurretako 10.000 umeak, 7.000 desagertu, milaka eta milaka zauritu, 2.300.000 persona igesean hegoaldean zarratuta dagoan gunen zabal batera, han barriro be bonbardatuak izateko. Gazako iparraldeko eraikinen %82 txikituta. Energia, ura eta janaria blokeata. Negua, hotza eta euria... Bai genozidio bat da, eta horregaitik "Israel" salatua izan da Hegoafrika eta munduko beste hamarnaka estatu eta erakundeengaitik Nazinoarteko Auzitegi Gorenean.

Munduan 15 milioi judutar dagoz guztira. Kairon, Osakan edo Mexiko DFn baino gitxiago. Honeetatik, 8 milioi inguru "Israelen" bizi dira. 8 milioi besterik ez!

Baina argitu daigun ezinbesteko dan kaka. Judutarrak ez dira herri bat edo munduan zehar sakabanatuta bizi dan nazino bat. Judaismoa erlijino bat da. Kristautasuna edota islamaren jarraitzaileak legez, judutarrak multietnikoak eta multikulturalak dira. Jatorri desbardinetaoak. Eslabiarak, askenaziak (Europa erdialdekoak), sefardiak, falasak (baltzak azalez, Afrikako Adarrekoak), persak (iraniarrak), eta semitik (ekialde hurbilean eta Magreben jaiotakoak). Azken honek dira semitik, eta euren moduan, inguru bardinean jaiotako arabiarak. Beraz palestindarrak be semitik doguz.

Sionismoa, konstrukto bat da, inbento bat. XIX. mendean Europan bizi ziran judutar batzuek argudio mitologikoak erabiliz, zelanbaisteko ideologia abertzale bat garatu eben. Munduan dagozan judutar gehienek ez eben eta ez dabe sionismoaren proiektu horretan parte hartu gura. Asi-



GABIREL EZKURDIA
Politologoa eta GeopolitikaZ ikerketa taldeko kidea

milauk dira, hau da judutarrak sentiduten dira erlijinoz baina hurrengo hurrengo nazionaliddegaz: estatu batuarrak, italiarrak, errusiarak, grekoak...

Sionisten ustez Palestina eta ia Ekialde Hurbil osoa (Eufrates ibaitik, Iraken; Niloraino, Egipton, Eretz Israel edo Israel handia deritxena), Jaungoikoak judutarrei prometitadako edo agindutako lurraldea da.

Ikuspegi mesianiko horretatik, "Israel" estatu supremazista eta errazista bihurtu dabe. XX. mendean izan diran buruzagi sionista guzti-guztiek (Ben Gurion, Golda

Meir, Shamir, Peres, Sharon, Netanyahu...) argi aldarrikatu dabe "Eretz Israelen" eraikuntzan, arabiarak sobran dagozala.

1948an Israel jaiotako eta segiduan 800.000 arabiar bota ebezan Palestinatik. Etxeak lapurtu, herriak desegin... Nakba deritxo "triskantzako genozida" hareri.

Ordutik Siria, Libano, Egipto, Zisjordania eta Jerusalem, batez be, sionistek lurak eta jaubetzak atzerititik heldutako kolonoen bitartez eskuratu dabez, palestinarak botaz, euren helburu historikoa bete guran.

Gazan aldiz *ghetto* baten legez (Debatik Donostiara lango eremua: 41 km-ko zerrrenda luze eta 6 eta 12 km-ko zabaleraz, 2.300.000 biztanle!) palestinarak birrinduak izan dira urteetan. Etenbako eraso bortitzen bitartez eta blokeo ekonomiko larri batez.

Sionismoak, "Israel" kritiketan edo salatzen daben guztiei antisemitismoaren etiketea ipintzen deutse. Guzurti batzuk dira. Palestinarren sarraskiak ikusita sionismoa da benetan, egun, semiten kontrakoa dana.

Gazako hondamendia etnikoa bada be, eta historikoki helburutzat hartua zana, ezin dogu ahaztu be geopolitikan, mundu mailan be al daketa sakonak gertatzen dabizala: BRICS+31ren sorrerea, Txinaren hazkundea, AEBren gainbehera...

Gazan kanal barri bat eregiteko plana dago. Gasbide bat be bai. Daukazan hondartza luzeetan oporretarako "uriak" egitea... Hori bai, arabiarrik barik.

Ikusiko dogu. Gazaren kontrako basakeria hau luzatzen dabil. Suntsipena ikaragarria izan arren iragarpen guztien aurka erresistentzia abertzaleak eutsi deutso. Yemenetik, Libanotik eta Iraketik be "Israel"ek zelanbaisteko erantzuna jaso dau. Sionisten arteko barruko egoneza be nabaria da.

"Israelek" historikoki judutarren biktismoan oinarritu dau bere ekimena, baina oingoan guztiz xahutu dau biktismo manipulu hori.

Zelan genozidio baten "biktima" izan, genozidio bat burutzen dozun bitartean?



LUMATUTEN

ARANTZA
ETXEBARRIAAhotsa, idatzia,
intimidadea

Joan jaku 2023a; ailegau da 2024a. Askok egiten dabe urteko balantzea hasikerako hilebeteetan. Ze ohitura itxi behar dogun atzean, eta zeri heldu behar deusagun aton, atxakia guztiak alde batera itxita.

Ez naz ni sano balantze zalea, baina nik neuk be bilatu dot nire ohituren zakuan, eta hara zer topau dodan. Ohitura bat da nire boltsa guztietan blok bat, kuaderno bat, esku bete *post-it* edo beste paper zatiren bat eroatea oharrez josita. Derrigorrezko osogaiak dira nire bizitzan. Paperotan idatzita euki ahal dot alabau daben pelikularen bat, aholkatu deusten libururen bat, egin behar dodan zereginen bat, etxean falta dodan produkturen bat. Horreek gomutok, buruko minok, ideok burutik joan egiten jatazanez, paperera ekarten dodaz nik sarri-sarri.

Oin dala gitxi, eskuz idatzitako paper bat zer dan irakurri neutsan idazle famau bateri, eta

ordutik ezin izan dot irakurritako hori burutik kendu. Idazleak dino ahotsaren ostean persona batek daukan gauzarik intimo eta partikularrena eskuz idatzitakoa dala. Ahotsez esango geunkena paperera ekarte dala idatzia.

Halan ba, erosketa-zerrendea etorri jat segiduan burura. Ez dago ezer erosketa-zerrendea baino intimoagorik, egia esan. Hor erakusten doguz gure etxeetan dagozan beharrak eta preminak. Hor ikusi leiteke ze motatako elikadura daukagun mahai bueltan, orekatua dan, noizean behin gozamenen bat onartzen dogun, edo palu bat baino artezagoak garan.

Nozono supermerkaduko karroan topau izan dot aurrekoak edo aurrekoaren aurrekoak itxitako erosketa-zerrendea, balio-garria ez dalakoan, ezertarako balio ez daualakoan. Eta aurreko hori edo aurrekoaren aurrekoa ez da konturatzen bere intimidade guztia agirian itxi dauala karro anonimo baten, auzokoari errastuak emon deusazala gobernetan dauan etxe tarroaren inguruan.

Hauxe ba 2024rako erabagi dodana: nire intimidadea gehiago jagongo dot. Zerrenda horreek kontu handiz gordeko dodaz gaurtik aurrera, nire alboan bizi danak jakin ez dagian -txoritxuren batek esanda- haren limoiondoari txitean-pitean falta jakozan frutuak aprobetxetako erosten dodala nik ginebrea hilean birritan.

ZERTZEAN



ILLART GUMUZIO

Gaia jarrita: "Urte barrirako asmoak"

1

Gabonen bueltan asetu doguz gosea ta egarria ta urtarrilez: propositoak. Jo! A ze itolarria! Urterik urte kontu bardinak da pixkat etsigarria. Ze gogorekin hartuko dogu hasi dan urte barria?

2

Propositorat batzuek dabe: gimnasioa, argaldu. Gorputz perfektu ta antzekorik inok ez deitsula saldu. Bizitza oso laburra da ta hobe denborarik ez galdu: buruko minak alboan itxi ta lagunekaz afaldu.

3

Eguneroko zorionera inor ez danez iritsi. Ein barre, negar, egon hasarre, ein pare bat gauza bitxi. Ezetz esaten ere ikasi hori be ez da ta gitxi. Ingurukoak zaindu eizuz ta norbera zaintzean itxi.

4

Gauza txikitan topatu eizu egunez egun plazerra. Poz handietan bihurtu ohi da sarri helburu txikerra. Hartuizu bide zuzena eta zeba ez bide okerra? Danan ganetik urte barria izan daitela ederra.

BEGI TXINDORRA

Garcia Marquezen liburua parafraseatuz, iragarritako hondamendi baten kronika da itsasora isuritako plastikozko bolatxoena. Hondamendia da, larrialdia, petrolio isurien tamainakoa. Prestigeren marea baltza legezko marea zuri honek be, itsasoa eta kostaldea kutsatu eta gaixotu ditu. Larrialdi planak ipini dira abian Galiziatik hasi eta Euskal Herriraino baina hautsi da anphora, ezinezkoa da oin isuritakoa barruan sartzea.

Iragarritakoa dala dinot, plastikoak zelan hartu daben dana ikusita denpora kontua baino ez zalako. Supermerkaduetatik hasita, ozeanoak, basamortuak, Himalaiako mendiak eta munduko bazter guztiak hartu ditue plastiko nazkagarri eta itogarriek. Gure gorputzetan sartzea da hurrengo pausua, eta horreek be osorik hartuko dabez.

Kronika baina... ez dakit kronika ete dan... itsasoari ereserkia akaso.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igoine-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Idazgela Zerbitzu 101
R.P.S. 31/06

ARRATIA

Urte barriagaz batera, Arratiako Berbalagun egitasmoak aurtengo kanpaina abiatu dau

Erredakzioa

Arratiako AEK-k Berbalagun egitasmoan parte hartzea animau gura ditu gure inguruko euskaldunak, euskerea ikasten dabizanak eta euskerea praktikau gura dabena.

Areatzan, Igorren eta Lemoan hainbat talde biltzean dira sarritan zabalagaz, euskerea praktikatzen oinarri izanik jarduerak egiteko. Euskaldunak zein euskerea ikasten dabizanak alkatzen dira taldeotan eta 5 lagun inguruko taldeak dira. Batzean diranak, hainbat ekintza egin bitartean (kafea hartu, liburuei buruz berba egin, mendi txangoak...), euskeraz egiten dabe berba. Sarritasuna eta ordutegia taldeko partaideek ebazten dabe. Horrezaz gainera, ekintza osogarriz osotutako agendea eskaintzen dau Berbalagun izateak: berbaldiak, tailerrak, txan-

goak eta astegoineko barnetegia, esate baterako.

Parte hartzeako, informazio gehiago eskatzeko zein izena emoteko 662 199 033 telefono zenbakira deitu edota arratia_berba@aekeus helbidera idatzi daiteke.



AREATZA

Autobus geraleku barri bat ipini dabe Areatzan

Sakramentinoetan, Bainuetxe Hotelaren aurrean dago geraleku barria. Herritarrek eskatuta, garraio publikoaren erabiltzaileak hasi dira erabiltzen.

Erredakzioa

Igazko garagarriean, Areatzako Udala Bizkaiko Foru Aldundiagaz alkatu zan Bizkaibuseko autobus geralekuen gainean berba egiteko. Izan be, bagilean 100 herritar inguruk Udalari, bainuetxe inguruan autobus geraleku barria ipintea eskatu eutsien, eta bainuetxeak be bat egin dau eskara horregaz, bisitari asko garraio publikoan mobiduten diralako. Eskakizunak, Bizkaibusek herri-guneetan daukan geralekuen arteko distantzia planteamentua (300 metro ingurukoa) beteten dau. Holan, parkeko geralekutik bainuetxera distantzia hori egongo da, eta oin arte parkeatik Biterirainoko geltokira (Artea) egon

diran 700 metroak laburtu egiten dira.



Bainuetxe ondoko geraleku barria.

Markesinak

Autobus geraleku barria eskatzeaz batera, herriko geraleku batzuetan markesinak ipintea be negoziatu zan, eta Bizkaiko Foru Aldundiak zementian erantzun eutsan Udalari egindako proposamenari baiezkoa emonaz. Hau da, Sakramentinoetan autobus geraleku barria ipiniko zala eta Sakramentinoetan zein Karpon markesina bana ipiniko dala Bilborako noranzkoan. Markesinak uda inguruan ipiniko dituela adierazo dabe Foru Aldunditik.

ARRATIA, ZEBERIO

Martiaren 22an pasauko da Korrika Arratia eta Zeberiotik

Arratian, Zeberiotik sartuko da 13:39an eta Lemoatik urtengo da 17:35ean, Durangalderantza. Bedia, Ubide eta Zeanuritik ez da pasauko; Arteatik eta Igorretik, barriz, bitan pasauko da 23. Korrika. Zezeilaren 1etik aurrera, erreserbau ahal izango dira kilometroak.

Igorre: 15:38
Dima: 15:59

Igorre: 16:25
Lemoa: 17:10

AREATZA

Itzek eta Norman Bates taldeek Areatzako Gaztetxean joko dabe urtailaren 26an

Erredakzioa

Urtailaren 26an izango da kontzertua Areatzako Laminetxe Gaztetxean, borondatearen truke. Kontzerturako atea 21:30ean zabalduko dira.

Itzek taldea, Nekane Otazuak, June Arestik eta Antton Elorriagak osotuten dabe. Hiru taldekideak mungiarak dira eta 2022an batu ziran alkarregaz musikea egiteko. 2023 urtean Gaztea Maketa Lehiaketako finalistak izan ziran.

Norman Bates taldea Manu Garciak (bajua), Julen Garciak (gitarra), Unai Ortizek (bateria) eta Daragh Espiauk (gitarra eta ahotsa) osotuten dabe. 2019an sortu zan taldea Plentzian eta 2023an hasi ziran kontzertuak emoten. Euren lehen abestia grabau eben Atico Stereo zigiluagaz. Taldeak rock alternatiboa egiten dau.

Erredakzioa

Harro Herri lelopean, Korrika, martiaren 14an abiatuko da Irunetik, udaletxearen aurreko plazatik, 16:00etan. Martiaren 24an, amaituko da Baionan, eguerdiko 12:20 aldera, Euskal Herriko herri eta auzoetatik 2.700 kilometro egin eta gero.

Gurean, martiaren 22an izango da eta egingo dauan ibilbidea Zeberio-Artea-Areatza-Artea-Arantzazu-Igorre-Dima-Igorre-Lemoa izango da.

dun moduan jagokiezan hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egiten dabe, Frantziako Gobernuaren aginduen gainetik eta euren notetan ondorioztatu kalteak onarturik" azaldu dabe AEKtik.

Leloa Harro Herri da eta euskeraz konpleju barik egitera animau gura ditu euskaldun guztiak AEK-k aurtengo Korrikan.

Ibilbidearen zehaztasunak esteka honetan topau daitezke: <https://www.korrika.eus/eu/23korrika-ibilbidea>.

Ordutegia

Zeberio: 13:39
Artea: 14:30
Areatza: 14:58
Artea: 15:24
Arantzazu: 15:31

23. Korrika

23. Korrikak, Azterketak Euskaraz kolektiboa omenduko dau. "Euskerea da euren aldarria, Korrikarena legez; euren ikasketen une ebatzigarri baten, herritar euskal-

AREATZA

Petardos CM enpreseak zabaldu dau barrero lehengo Piroteknia Astondoa

Arazo gairiduetzen ondorioz, Piroteknia Astondoa likidazina joan zan, eta 2023ko urri lehenengoaren 5ean, Petardos CM Kataluniako enpreseak hartu eban enkantean.

Erredakzioa

Abenduaren 20an, Petardos CMk zabaldu eutsazan atea publikoari, piroteknia produktuak salduko.

Lau urte eriazan zarratuta Areatzako enpresa enblematiko honek. Piroteknia produktuak fabriketako lizentzia mantenduten dan arren, momentuz, Kataluniako enpreseak ez ditu bere produktuak Areatzan egiten; piroteknia produktuen biltegi eta denda moduan erabilten ditu Areatzako instalazioak.

Petardos CMk be ez ditu su artifizialak botaten. Piroteknia Astondoa hamarkadetan hartu eban parte Bilboko Aste Nagusiko eta Donostiako jaietako su artifizialen lehiaketetan, sariak be irabaziz. Bilboko zeruan Astondoko ikuskizuna ikusi ahal izan zan atzen urtea, 2019a izan zan.

Petardos CM

Petardos CM, batez be, produktu

piroteknikoak salduko dediketan da eta estaduko enpresarik handienetakoa da produktu horreen salmentan. Txinatik ekarteko arazoak zirala-ta, Kataluniako enpreseak, ahal dan neurrian, bakarrik Espainian fabrikatuko produktuak salduko ebatzi dau atzenengo urteotan eta 2021eko %5etik, 2022an %65era pasau zan. "Piroteknia arloa, Espainiara itzultzen dabil. Deslokalizau egin zan, baina oin Espainian fabriketan ondo ateraten dira diru kontuak. Gure



dendetan saltzeako, produktuak, ahalik eta gehien geuk fabriketan saiatzen gara" azaldu deusie begituri Petardos CMtik. Hori dala-ta, hainbat fabrika erosten dabiz estaduko geografia osoan.

Holan euren produktua, hurrekoa, garraio gitxiago behar dauana eta artesanala dala dinoe enpresakoek. Basoa babesteko proiektu bat be badaukiela eta basoen aldeko konzientziazinoan jarduten dabela.

Produktu piroteknikoaren zarata arazoak be konzientziauta dagoz. Piroteknia zaleei zarata handiko produktuak gustetan jakiez eta maskotei eta jente bateri barriz kalte egiten deutse zarateak. "Horregaitik, sonordade bajuko produktuak daukaguz eta zarata handikoak eremu konkretu batzuetan -ospitaleatik urrun, esate baterako- botatea defendiduten dogu. Hezi egin behar da jentea, ez galarazo. Bizikidetzeta beharrezkoa da".

ARRATIA, UBIDE

Osasun mentala eta generoaren gainean hausnartzeko tailerra Diman

Erredakzioa

Zezeilaren 1ean, 18:00etatik 20:00etara, osasun mentala eta generoaren gainean hausnartzeko tailerra hasiko da Dimako eskolan, Estereotipak taldearen eskutik. Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatutako tailer honek saio bi eukiko ditu: zezeilaren 1ean eta 8an, hain zuzen be.

Tailerra ez da terapia talde bat, gogoetarako taldea baino. Bertan, ezinegon psikikoei buruzko aurrerretxien gainean hausnartzeko dabe partaideek, zer da eromena? zer dira genero estereotipoak? eta ze hartu-emon dago estereotipo honeen eta osasun mentalaren artean? moduko galdereri erantzuten. Tailer teorikoa izango da genero estereotipoak

osasun mentalean daukien eragina aztertuko dauana. Estereotipak, osasun mentala feminismotik landuten dauan alkarte da.

Autodefentsa feminista

Hurrengo egunean, zezeilak 2, barikua, hau be Ilgoran Jabekuntza Eskolaren programazioaren barruan, Zeanurin *Autodefentsa feminista* ikastaroa hastekoa da. Ikastaroak lau saio ditu programata, zezeilaren 2, 9, 16 eta 23an, 17:30etik 19:30era.

Autodefentsa feminista tailerrak indarkeria matxistea saihesteko tresna eraginkorrak dira. Indarkeria horreek identifikau eta aurre egiteko baliabideak ipinten ditu andren eskura. Autoestimua indartu eta segurtasuna emoteko teknika fisiko eta psikologikoak landuten dira.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Begitu-lagun kuota bost euro igongo da 2024an

Erredakzioa

BEGITU aldizkaria Arratia, Ubide eta Zeberioko etxe guztietara eta BEGITU *online* munduko txoko guztietara debalde helduten diran arren, 351 lagunek egin, ez dala debalde egiten badakie, eta proiektua lagunduten dabe, urtero, borondatez, kuota bat ordainduz. Begitu-lagunen kuota honek, dirulaguntzak eta publikidadeagaz batera, dira BEGITU finantzietako diru iturriak.

Begitu-lagunen kuotak 2008tik aldatu barik mantendu izan diran arren, aurtan 5 euro gehiago igotea ebatzi dau Zertuk, BEGITU kaleratzeak dakarzan gastuei aurre egin ahal izateko. Holan, 2024an ekarpena egiteko hiru

kuota aukera dagoz: 40, 60 edo 80 euro.

Begitu-lagun izatearen onurak

2024an Begitu-lagun kanpainari lehentasuna emongo deutso Zertu Kultur Elkarteak. "Arratia, Ubide eta Zeberioko jentearen laguntzea ezinbestekoa da proiektuak aurrera egiteko" dinoe alkartearen zuzendaritzakoek. Proiektuari lagunduteaz gainera beste onura batzuk be badakarz Begitu-lagun izateak: hamabostero paperezko BEGITU egiten diran zozketetan parte hartzea edo *begitu.eus* webgunean egiten diranetan, eta Zertu Kultur Elkarteak ateraten dituan produktuak doban jasotea, berbarako. Begitu-lagun barriak, 11 opari jasoko ditu lagun egitean.

ARRATIA, UBIDE

BideON Arratianek informazio bulegoa zabaldu dau Igorren

Erredakzioa

BideON Arratian, eskaripeko garraio zerbitzuak, jentearentzako informazio bulegoa inaugurau eban urtailaren 12an, Igorreko Agirre Lehendakaria kaleko 11 zenbakian. Zabalik dago asteleheneetik barikua 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Lokal horretatik Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide eta Zeanuriko bizilagunei ekimenaren barri emongo jakie; baita urtaila amaitu baino lehen martxan ipiniko dan sistemari izena emoteko aukerearen gaineko informazioa be.

Arratiako Udalen Mankomunitatearen ekimenak, aukerea emoten deutse Arratian erroldatuta dagan unibersidadeko ikasleei euren etxetik, unibersidadera doan garraio publikora hurreratzeko. Beste taldea eskualdeko herriguneetatik urrun dagozan



etxebizitzetan erroldatuta dagozan 65 urtetik gorako personak dira. Zerbitzuak eskualdeko uriguneetara eroango ditu etxetik, udal-etxetara, osasun zentroetara, farmazietara, dendetara, banku bulegoetara edo kutzazinetara, hain zuzen be. Galdakaoko anbu-

latoriora hurreratzeko zerbitzua be egongo da eurentzat.

Ibilbidearen prezioa euro 1 eta 1,5 euro bitartekoa izango da. Bizkaiko Foru Aldundiak 900.000 euroz finanziau dau proiektu honen fase pilotua eta urtebete iraungo dau.

begitu **BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!**

3004AN BEGITU LAGUN BARRI EGIN! BEGITU LAGUN BARRI EGIN! BARRI EGIN!

Begitu aldizkaria jenteari emongo deutso da, baina be Arratia-Ubide-Zeberioko jenteari emongo deutso da. Begitu aldizkaria jenteari emongo deutso da, baina be Arratia-Ubide-Zeberioko jenteari emongo deutso da.

Arratia-Ubide-Zeberioko jenteari emongo deutso da, baina be Arratia-Ubide-Zeberioko jenteari emongo deutso da.

Online Begitu-lagun izateko, be Arratia-Ubide-Zeberioko jenteari emongo deutso da, baina be Arratia-Ubide-Zeberioko jenteari emongo deutso da.

Zertu Kultur Elkarteak Herriko plaza 24, 48342 Artea.

Be-izenburua: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____
 Karta/identifikazioa: _____
 Aukeratu urteko helburua: 40 60 80

Edo e-mail, biak datuak: be@begitu.eus

LEMOA

Euskera Plana deiseinetako prozesu parte-hartzailea abiatu dau Lemoak

Erredakzioa

Lemoako Euskerearen Plan Estrategikoa diseinetako prozesua abiatu eban Udalak pasau dan urteko zemendian. Orduan, gal-detegi bat zabaldu zan herritarren artean, 88 erantzun jaso dira, eta aurtengo urtailan, herritarrei zuzendutako gogoeta saioak egiten hasi dira Kotxepin Kultur Etxean. Lehenengoa urtailaren 10ean izan zan eta hilaren 17 eta 25ean izango dira beste saio biak.

Gogoeta mahaiak gaien arabera bananduta dagoz eta gaiaren inguruan interesa daukien herritarrei zuzenduta dagoz. Euskara zerbitzuak idatziko dauan Plan Estrategikoa hartuko dira kontuan bertan jasotako eretxiak. Hilaren 10ean, aisialdia, kultura, kirola eta euskalduntzea izan zan gaia; 17an, Euskara zerbitzukoak 18:00etatik 20:00etara gazteakaz batuko dira Kotxepin Kultur Etxean euren ekarpenak jasoteko, eta 25ean, 10:00etatik 12:00etara, hezkuntza eta familia transmisioaren inguruko kezak eta ideak bilduko dira.

Hiru saio horreen ostean, hilebeteko tartea hartuko dau Euskara zerbitzuak bildutako

eretxiak ordenau eta sailkatzeko, eta azken saio ireki bat egingo da martiaren 2an, 10:00etatik 13:00etara. Open topaketa izena izango dau, eta herritar guztiei zuzenduta egongo da.

Lan-mahaietan zein open topaketa parte hartzeako izena emon behar da helbide honetan: <https://labur.eus/lemoalanmahaiak>.



DIMA/LEMOA

Jaia antolatu dau Eingo eskoleak Diman eta Lemoan

Erredakzioa

Urtero neguan, jaia antolatu-ten dau Eingo eskoleak. Aurten hilaren 27an batuko dira eskolako irakasle, ikasle eta lagunak, musika joaz alkarregaz pasetako eguna Lemoan eta Diman.

Lemoako Atxeta plazan batuko dira 12:00etan, kantuan eta jantzan kalejirea egiteko. Baba jana 14:30ean eukiko dabe Artaungo

Azurmendi jatetxean. Ostean sorpresak eta parrandea iragarri dabe antolatzaileek eta amaituteko, erromeria Dimako plazako frontoian. "Normalean guk antolatzen doguzan jai, ekimen eta ekintzak Eingo zale guztiei zuzenduta egoten dira" adierazo eban igaz Iker Allur Eingo eskolako arduradunak. Bazkarirako erre-serbak 94 673 64 80 telefonoan egin behar dira.



IGORRE

Igorreko Udalak 6 milioi euroko aurrekontua onartu dau 2024rako, 2023an baino %7 handiagoa

Igorreko Udalak 2024ko udal-aurrekontuak onartu ditu, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz.

Erredakzioa

Holan, Udalak aurtengo urteari 6.030.168,35 euroko aurrekontuagaz egingo deutso aurre, 2023ko aurrekontua %7,06an gaintuz. Beste gauza batzuen artean, hazkunde hau Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena %5ean handitzean oinarritzen da. Honek, inbersino ataleko partidea %11,29 eurotan handitzea ahalbidetu dau, 681.000 eurotarra helduz.

Olatz Urkiza alkateak aurrekontuetan adierazotakoa beteteko garrantzia azpimarratu eban; izan be, 2023ko ejekuzinoa %50a inguruan ibili zan. "Udalerriaren eta igorretarren beharretara moldatzen diran kontu errealistak onartu doguz. Igorre hobe eregi gura dogu gure bizilagunakaz batera; eta horregaitik, batez be auzoetan biztanleriagaz antolatu doguzan bilera ugarietan jasotako proposamen batzuk gehitu doguz. Era berean, aurreko legegintzaldian hasitako hainbat proiektu amaitutea lehenetsi dogu". EH Bilduren, alegazino gehienak be jaso dirala jakinarazo dau Urkizak.

Inbersinoei jagokienean, kaleko

garbiketa zerbitzua erdigunean zein auzoetan hobetuteko dirua dago; Industrialdeko errepidea konponduko da eta kaleko argiztatze sistema aldatuko da, kalidade eta eraginkortasun energetiko eta ekonomikoa hobetuteko. Gazteguner funtzinoa beteko dauan lokala ahalbidetako dau Udalak DBH eta Batxilergoko ikasleentzako; Zubizarreta eskolako patioko lanak amaituko ditu eta eskola txikiko teilatua konponduko dau, beste gauza batzuen artean.

Horrezaz gainera, "gobernu taldea Udalez gaintako erakundeakaz alkarlanean dabil Igorreko kirol instalazioak hobetuteko;

besteak beste frontoi estalia, bertan zenbait kultura ekitaldi antolatu ahal izateko. Udalak padel pista bat eta futbol eta saskibalo pista misto bat ipinteko aukerea landuten dabil; izan be, horreek herritarren proposamenak dira" azaldu dabe Udaletik prensa-ohar batez.

EH Bilduren kontrako botoa

Udal gobernuak aurkeztutako 2024ko aurrekontuei EH Bilduk ezezko botoa emon eutsan. Izan be, taldeak azaldutakoaren arabera, "EAJk guk itxitako proiektu gehienak gelditu arazo ditu, euren esanetan, barriro aztertuteko. Proiektu honeetako asko martxan ipinteko atean itxi genduzan". Horrek, proiektuak aurrera aterateko atzerapenak eta kostu ekonomikoa handitzea ekarriko dau. Proiektuotako bat Gazteguner zan. Gazteakaz prozesu parte-hartzaile baten ondoren "esleipenaren zain itxi genduzan. EAJk ez dau proiektua bape be ikusten eta aztertze prozesu bat abiatu arazoko dau. Beraz proiektu honek ez dau aurrerapausurik emongo 2024an" adierazo deutse BEGITURI Igorreko EH Bildutik.



LEMOA

Merkatari alkartea kide barri bila dabil

Erredakzioa

Lemoa Ureztatzen, merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen alkarreak bazkide izateko kanpaina abiatu dau hilaren 31ra arte. Izena emoteko mezu bat bialdu behar da lemoaureztatzen@gmail.com helbidera. Kanpaina abiatu zanean, 12 establezimentu ziran Lemoa Ureztatzen alkarreko bazkide. Herri txikietako merkatarialkarre, herrietako merkataritza bultzatzen dabe eta holan, bizia emoten deutsee herriei.

Alkarrekoek kide izateak bentaja asko dakarzala gogora arazo gura dabe kanpaina honetan: alkarreak ekimenak egiten ditu urtean zehar, sare sozialetan ikusgarritasuna emoten deutso establezimentuari eta herriko merkataritza zabalduetea ahalbidetzen dau. "Zuzendaritza



batzordea bazkideak diran saltokiek osotuten dabe eta, besteak beste, hurrengoetarako biltzean dira: gai desbardinei (kanpainak,

ekimenak...) buruz ebatziak hartzeako, idea barriak emoteko eta kezak partekatze" azaltzen dabe euren webgunean.

ANASTASIA ATUTXA

"Zientzia eta zientzia-fikzinoa beti egon dira lotuta, baina zientzia-fikzinoa eta fantasia be"

Durangoko Azokan egon zan salgai Zeanuriko Anastasia Atutxaren euskerazko lehenengo eleberria *Sorginaren hil ala biziko sekretua* eta abenduaren amaieran aurkeztu eban herrian. Anastasia Atutxa Zamkova, Nastia hipokoristikoagaz ezetuten dabe Arratian, baina aspalditik atzerrian bizi da eta han izen osoa erabilten dau. Ingalaterrako Lincoln urian bizi eta lan egiten dau Syngentan, nekazaritza arloko enpresa handi baten. Lanetik etxera joandakoan, zientzia-fikzinozko eta fantasiako liburuak idazten dauz. *Sorginaren hil ala biziko sekretua* euskeraz idatzi dauan lehenengoa da, baina Stacey Keystone ezizenagaz hainbat liburu kaleratu ditu ingelesez.

Erredakzinoa

Zer dala-ta joan zinan Lincoln-era biziten?

Ikerkuntza nekazal enpresa baten nago Lincoln-en. Garagar hibridoa ekoizten dauan enpresa baterako egiten dot behar. Bioteknologia ikasi neban Valentziako Unibersidade Politeknikoan eta gero master bat egin neban landare biologian Suediako Nekazaritza Unibersidadean. Doktoretzea, barriz, Bangorreko unibersidadean. Bangor Galeseko unibersidade bat da. Sitka izeia kongelatzeko erresistentziaren genetikearen gainekoa izan zan nire doktoretzako lana. Doktoretza amaitutakoan hasi nintzan Lincoln-en beharrean. Enpresa hau, Syngenta, nekazaritza arloko munduko bigarren enpresa handiena da, Bayer-en atzetik.

Eta lanaz gainera idatzi be egiten dozu, zein da zure bizi-modua han Lincoln-en?

Nekazaritzako enpresea danez, udan askoz lan gehiago daukagu: garagara jotzen eta hori dana. Baina neguan eta udabarrian, lana badaukagu, beti daukagu lana, baina lan gitxiago izaten dogu. Orduan lasaia ibiltzen naz lanean eta lanetik bueltetan nazanean idazten dot. Batez be sasoi honetan, egunak laburrak dira eta ilun egoten da eta denda guztiak 18:00etan zarratzen dira eta heltzean naz etxera eta hor egoten naz idazten.

Zure lana eta idazten dozuna sano diferenteak dira, ezta?

Nik ez dot holan ikusten. Zientzia eta zientzia-fikzinoa desbardinak dira baina beti egon dira lotuta.



Zientzialariei beti interesau jakie zientzia-fikzinoa. Badago istorio bat, ez dakit apokrifoa dan ala ez, baina... AEBko Manhattan proiektuan (Oppenheimeren zuzendaritzapean, Los Alamos laborategi ezkutuan lehenengo arma nuklearrak garatzeko proiektuan, hain zuzen) beharrean egozanean, egon zan zientzia-fikzinozko editore bat aldizkari batekoa, asmatu ebana non eta zertan ebizen Manhattan proiektukoak. Ikerketa egon zan orduan, ea zelan asmatu eban jakiteko: ea baten batek esan eutsan sekretua edo jakiteko. Baina ez. Proiektuko zientzialari askok eskatuten eben aldizkari hori Mexiko Barrira bialtzea, eta orduan editore horrek pentsau ei eban: "zelan egon daiteke Mexiko Barrian horrenbeste jente zientzia-fikzinozko aldizkari hau erosten, han ez dagoanean ezer?" Eta leku sekretu bat izango zala eta zientzialariak egongo zira-lara ondorioztatu eban.

Gauza jakina da zientzialari askok zientzia-fikzinoa irakurten dabela. Elon Musk-ek be esan eban, bere gaztetako interesetako bat zientzia-fikzinoa zala.

Txinan, zientzia bultzatzeko sekulako interesa eukien eta hasi ziran begiratuten ea zer egin ahal eben horretarako. Konturatu ziran AEBn zientzialari gehienek zientzia-fikzinoa irakurten ebela eta orduan esan eben, "guk Txinan zientzia-fikzinoa behar dogu".

Zientzia eta zientzia-fikzinoaren arteko loturea nahiko tinkoa da. Egia da zientzia errealidadean oinarrituten dala, baina batzuetan zientzialariak hasten dira pentsetan ze izan eitekean edo zer ger-

tatuko zan hipotesi bat muturrera eroan ezker. Zientzian hipotesia gero testau eta probau behar da; zientzia-fikzinoan ez.

Zientzialariak hipotesiak egiteko sormen handia behar dabe, eta zientzia izan aurretik hipotesi horreek zientzia-fikzinoa dirudie askotan.

Nik holan ikusten dot. Loturea badago eta beti izan da lotura hori. Zientzia eta fantasia be lotuta dagoz desbardinak izan arren eta zientzia-fikzinoa irakurten dauan jente askok fantasia be irakurten dau. Nire liburua *Sorginaren hil ala biziko sekretua* fantasiakoa da. Niri asko gustetan jataz gauza biak, zientzia-fikzinoa eta fantasia.

Oin dala 15 urte inguru, Urruzuno saria irabazi zenuanean, begituk alkarrizketea egin eutsun. Zein izan da zure ibilbide literarioa Urruzuno irabazi zenuanetik gaur arte?

Urruzuno irabazi eta gero saiatu nintzan beste ipuin batzuk euskeraz idazten baina unibersidadera joan nintzan eta han ikasten egon nintzan eta ez neban ezer idatzi. Dana dala, nik beti euki dodaz buruan istorioak eta momentu baten, Covid-a dala-ta etxean sartu ginduzanean, bakarrik sentidu nintzan, nire lagun asko etxera joan ziralako. Ni Bangorren nengoan doktoretza egiten eta oso txarto sentidu nintzan, giltzapetuta, eta ez neukan animorik ikasteko. Idazten hasi nintzan, neure buruan behintzat, beste mundu baten egoteko, bidaiatzeko eta beste lekuetatik ibilteko etxean egon barik. Horrek, egia esan, asko lagundu eta ondo egin eustan. Ingelesez

idazten neban ze doktoretzea be ingelesez zan eta Ingalaterran bizi nintzan. Idazteak soltau egin ninduan apur bat, eta holan ikasteko gai izan nintzan; doktoretzea amaitu eta lana idatzi ahal izan neban idazteari esker.

Eta gero pentsau neban ingelesez idatzi badot, euskeraz zelan ez! eta hasi nintzan *Sorginaren hil ala biziko sekretua* idazten. Istoria XIX. mendearen hasieran Euskal Herrian kokatzen da. Zeanurin kokatututea eta Zeanuriko euskeran idaztea pentsau neban, berbak eta esakerak matenidu eta abar. Baina hori Ibaizabalek kendu egin eban. Nik ulertzen dot; gaztetxoei gehiago hurreratzeko, euskaldun barriei eta jente gehiori hurreratzeko ebatzi egokia da, baina penea emon eustan. Ha-ta guzti be, uste dot garrantzitsua dala literatura jenteari hurreratzeko eta ez egitea lar gatxa, berez badagozalako zailtasunak gazteek liburuak irakurri dagiezan. Horregaitik onartu neban.

Ingelesez idatzitako liburuak Stacey Keystone ezizenagaz sinatuten dozuz. Kontau apur bat liburu horreen nondik norakoak.

Serie bi daukadaz. Bata da alkimista neskatxi baten heldutasunerako bidaia. Ez da nire bidaia eta ez da nik izan gura neukena, beste personaia bat da. Unibersidadean hasi, eta hor doa magia ikasten eta magia eta zientzia konbinetan hainbat tirabiragaz. Personaia Dana Bedwen deitza da. Galesen bizi nintzanez, Galesko hizkuntzari lotu neutsan liburuak, *bedw* urkia da eta nire liburuko personaia magikoak Galesko zugatzen tematikako abizenak daukiez. Inguruagaz eta hangoz hizkuntzeagaz lotu gura neban

eta berba batzuk hartu nebazan. Asmatutako berba magikoak be, ezeretik asmatu beharrean, inguruagaz loturea daukien berbak dira.

Beste serie bat egiten be banabil. Gaztetxoagoentzako liburuak dira. Neskaxi bat hemengo mundutik beste mundu magiko batera doa, ikasten. Lo dagoanean doa mundu horretara; gero gorputzez be badoa. Sano desbardinak dira serie biak. Serie hau Marn Magical School deitza da.

Jarraituten dot liburuak idazten. Momentu baten asko kostau jatan idazten jarraitzea, momentu txarrak izan diranean, baina atzera be, animoak berreskuratzen noa. Askotan idazleok barruan daukaguna landuten dogu gure liburuetan. Horrek ez dau esan gura personaiek geu garanik edo liburu horretan dagozan pentsamentuak ados gagozanik, baina neurri baten bai, daukazuzan sentipenak eta ideak agertzen dira liburuan.

Serie bi horreek badaukie loturarik *Sorginaren hil ala biziko sekretua* liburuagaz?

Ez. *Sorginaren hil ala biziko sekretua* liburu euskalduna da; euskal mitologia, euskal magia eta Euskal Herriari lotutakoa. Egia da auzi ingelesak agertzen dirala, baina ez da ni Ingalaterran bizi nazalako, baizik eta garai haretan ingeles asko egoten ziralako Euskal Herrian, meatzaritzan. Niri bururatu jatan, magian, sorgin euskaldunak eta auzi ingelesak egongo zirala eta bertoko eta etorten ziranen artean, egon eitekezala tirabirak, amodioak eta beste gauza batzuk. Holangoa da nire liburua: fantasia eta misterioa buztartzen ditu. Protagonistea, Nagore Garmendia deitza da. Bere senargaia hilten da ezkondu aurretik eta bera ba-



Alvaro Rabelli eta Anastasia Atutxa Gabonetan Zeanurin.

serrian ostenduten da. Gero senargaiaren anaia jatorko heriotzea ikertzeko. Nagorek ez dau gura bere sekretua inok jakitea eta bere esku hartzean dau ikerketea. **Nagore Garmendia horrek eukiko dau beste abenturarik?** Hor nabil. Liburuan misterioa argitzen da, baina nik hor itxi dot jarraipenerako aukera bat. Idazten hasi naz, baina kaleratuko da lehenengoak salmenta onak badaukaz eta jentea interesauta badago. Nik espero dot jenteari gustetea.

Askotan gogoratzen naz gaztetxotan Durangoko Azokara joaten nintzanean, Institutuan beti esaten euskuen euskerazko klaserako irakurri behar genduzan liburuak jatorrizko bersinoak izan behar zirala. Ni beti joaten nintzan Durangoko Azokara eta *stand* guztietatik pasetan nintzan itaun bardinagaz: zientzia-fikzioa eta fantasiako libururik badaukuzue jatorrizkoa euskeraz dana? Eran-

tzuna izaten zan ezetz, eta nik pentsetan neban: ba neuk idatziko dot. Gero Ibaizabaleko batek esan eustan, neskatxi bat pasau zala euren *standetik* galdera horregaz, eta orduan berak, oso harro eta pozik, esan eutsala baietz. Horrek asko poztu ninduan. Euskeraz idazten dabenek badakie ez dogula dirurik irabazteko eze-lango esperantzarik. Gura doguna dala jentek liburuak irakurtea, disfrutetea, irakurten jarraitutea eta holango gauzak. Dana dala, liburuak salmenta onak izatea espero dot, holan bigarren liburua atera ahal izateko. Horregaitik animau gura dot jentea liburuak irakurtera. Ibaizabalek argitaratu dau baina Elkar-en dago salmentan eta edozein liburudendatan eskatu daiteke. Liburutegiak be animau gura dodaz liburu hori euki dagien. Liburutegietan egoiteak asko poztuko nau. Jentek liburuak disfrutetea gurako neuke.

"*Sorginaren hil ala biziko sekretua* liburu euskalduna da; euskal mitologia, euskal magia eta Euskal Herriari lotutakoa"

ARGITARRA FUTAKO AZKEN TITULUAK

- 41 - ANTONI KAZABON
Haitzaren izena
- 42 - AJTOR ARANA
Ejitoen altxorra
- 46 - ANTONI KAZABON
Kantu bat Alikarentzat
- 47 - AJTOR ARANA
Bamproen hila
- 48 - ANBIER OLASO
Shan eta Siven edo Bidean Ixasia
- 49 - GAZDIA AROSTEGI
Antigodak
- 50 - ANTONI KAZABON
Ezberdina bezain gozoa
- 51 - AJTOR ARANA
Beldurrak alrean

Nagorek inon egiten duen sekretu bat da gogotia Jonathan senariari hil zeneanetik, ezabat zuten bitartean. Egun batzuk, Nagorek ezin izan zuen bere izango du, Jonathan senariari amara Oskak, eta abar. Ingalaterratik, ezin izan du amaren berri izan bere burua.

Berriroki Nagorek eta Jonathanen sekretua argitaratu du, eta Nagore eta haren familia berriroki argitu. Zer dago jokoan?

Anastasia Atutxa Zamkova - *Sorginaren hil ala biziko sekretua* ibaizabal

Anastasia Atutxa Zamkova (Zeanuri, 1993). Bietskologian lizenziatua, Sika lekuren genetika izaneko doktoretza egia duen, eta landareen hobekuntza jarraitzen du lanean. Liburuaren lehen liburua argitaratu zuen *Una cosa es el amor y otra es el amor* izenarekin. 2009an Uztarriko Ipuin Lehiaketan irabazi zuen saria. Ondotik, fantasia eta misterio fikzioa nobela batzuk idatzi ditu ingelesez, Stacey Keystone izenarekin. Hau da euskerazko argitaratu duen lehen liburua: *Sorginaren hil ala biziko sekretua*.

52

MENDIA

Alex Txikonek amaitutzat emon dau Annapurnako neguko espedizinoa

Urtilaren 13an, Alex Txikonek, Chhepalek, Magkpak, Ang-gyaluk, Maylak, MigTembak, Lakpak, Tashik, Moesesek, Mattiak eta Andresek amaitutzat emon eben Annapurnako neguko espedizinoa.

Erredakzioa

Abentura hasi zanetik hilebete eta erdi baino gehiago igaro ondoren, eskalataile taldeak barriro ez igoteko ebatzia hartu eban Annapurnak planteetan dituan baldintza gaxen aurrean.

Hiru errotazino izan dituan espedizinoa izan da. 6.400 metrora egoan C3ra ailegauta, bueltea emon behar izan eben. "Arrisku larregi hartu doguz daborduko. Gauza bat da ni harrapatzea, baina ez nire kideak" esan eban Alex Txikonek. "Annapurnak nahikoa dala esan deusku, saiatu gara, indarrak eta gogoa daukaguz, baina agian gailurrerako gosea falta jata, oin dala urtebete Manasluko gailurra lortu nebalako". Eta "hemen dagozan guztiak, batez be, nigaitik dagoz, eta ni joaten banaz, ez da ezer gertatzen. Beste kontu bat da eurek joatea. Burrukan egin dogu, guk eroan dogu guztia, guk hornidu dogu dana. Ni bakarrik erratu naz eta danok jaiki gara. Uste dot zuhurtziabakokeria izango litzatekela geratzea Annapurnan taldea, etenbarik eraldatzen dabizen baldintza oso onakaz, baina aldi berean hain konprometidu eta arrisksuak diralako" adierazo eban Txikonek.



Lemoaztarraren arabera, "ez zan ebatzi erraza izan; goiz osoan berba egin eta hausnartu ondoren, bizitza bermatuatari baiezkoa emotea ebatzi dogu". Lankideei, babesleei eta jarraitzaileei eskerrak emoten amaitu ebazan Txikonek bere adierazpenak.

PELOTEA

Xabier Rekaldek jantzi dau Bizkaiko klubaren arteko buruz buruko txapela

Erredakzioa

Urtilaren 5ean jokatu zan Lemoako pelotalekuan Bizkaiko klubaren arteko txapelketearen buruz buruko nagusien finala, El Corte Ingles Sari Nagusia lortzeako lehia. Bertan, Dimako Txumuluxeta Pelota Klubeko Xabier Rekalde urten zan garaile, 22-09, Portugalteko Izarra Eskupelota Elkarteko Unatx Riolen kontra.

Partiduen hasikeran, Riolen izan zan aurrea hartu ebana, 0-3ko aldeagaz. Baina Rekaldek erritmoa hartu eban, hiruna bardindutea lortuta. Hortik aurrera jokatu ziran partidua ebatziko eben tantuak, lehia 7-7ra arte mantentidu zalarik. Baina ordutik aurrera,

Dimakoa izan zan nagusi eta partidua fina egin ostean, aurkariarentzako aukera gitxi itxi ebazan, 22-09ra heldu arte.



Xabier Rekalde txapelagaz.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia Ak 2-3 irabazi eban Eibar B liderraren kontra

Andrazkoen Arratia Ak Eibar B liderraren kontra irabazi eban etxetik kanpo eta B taldeak Pauldarrak taldearen kontra etxean, Lemoako Harrobik Ibarsusiren kontra eta gizonezkoen Arratia Bk Ibaiondo Nerbioiren kontra 2-1 irabazi ebezan euren partidua. Gizonezkoen Arratia A taldeak galdu egin eban etxetik kanpo San Pedro taldearen kontra.



Andrazkoen Arratia A eta Berriozarren arteko partiduko irudia.

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 14an jokatu eban Eibar B liderraren kontra eta 2-3 irabazi eban. Arratia Ak urteko lehen partidua biak irabazi ditu. Aurreko partidua 4-0 irabazi eban Berriozarren kontra Urbietan. 15 jardunaldiren ostean 24 puntu ditu Arratia Ak eta zazpigarren dago sailkapenean. Datorren partidua be etxetik kanpo jokatu dau atzen postuan partidurik irabazi barik dagoan Monte Soccer Santandergo taldearen kontra hilaren 21ean, eguerdiko 12:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 14an jokatu eban etxean Pauldarrak B taldearen kontra eta 3-0 irabazi eban. Aurreko partidua 1-6 irabazi eban Ibaiondo Nerbioiren kontra etxetik kanpo. Arratiak bost partidua jarraian irabazi ditu eta 14 jardunaldiren ostean 27 puntu ditu eta laugarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Indartsu taldearen kontra hilaren 21ean, arrastiko 15:30ean.

Gizonezkoen Arratia A taldeak hilaren 14an jokatu eban San Pedro taldearen kontra etxetik kanpo eta 2-1 galdu eban. Aurreko partidua 1-2 galdu eban Zalla A ren kontra. Atzen lau jardunal-

dietan ez dau partidurik irabazi Arratia Ak eta aurreko jokatuak biak galdu ditu. 16 jardunaldiren ostean 21 puntu ditu Arratia Ak eta zazpigarren dago sailkapenean. Datorren partidua Urbietan jokatu dau hilaren 20an Uritarra A taldearen kontra, arrastiko 15:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 14an jokatu eban Urbietan Ibaiondo Nerbioi taldearen kontra eta 2-1 irabazi eban. Aurreko partidua osterako galdu egin eban 2-1 etxetik kanpo Loiu A taldearen kontra. 16 jardunaldiren ostean bederatzigarren postuan dago 21 puntugaz. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Montefuerte A taldearen kontra hilaren 20an, arrastiko 16:30ean.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak abenduaren 14an jokatu eban etxetik kanpo Ibarsusi taldearen kontra eta 1-2 irabazi eban. Aurreko partidua 3-1 irabazi eban etxean Gernika B taldearen kontra. Lemoako taldeak atzen hiru partidua jarraian irabazi ditu eta 16 jardunaldiren ostean seigarren postuan dago 27 puntugaz. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau La Merced A taldearen kontra hilaren 20an, arrastiko 17:00etan.

MENDIA

Arratiako Mendi taldeek mendian federetako kanpainak abiatu ditue

Urte osoan zehar federau daiteken arren, urte hasikerea da federeatzearen bentajak aprobetxetako sasoirik onena, eta mendi taldeek, kanpainak abiatzen ditue euren bazkideak federau eta bazkide barriak egiteko.

Erredakzioa

Arantzazuko Arginatx Mendi Taldean, Areatzako Lamino Kirol Klubean, Bediakoeek Ganguren Mendi Taldean, Lemoako Ganzabal Mendi Taldean eta Zeanuriko Joko Alai eta Suzien Mendi Klubean ize-na emon daiteke federatzeko.

Taldeetako bazkide izan ezean, lehenengotik bazkide egin behar da eta urteko kuota ordaindu; gero federatzeko formularioa bete behar da. Formularioa beteta dagoanean mendi taldeek federetan dabez bazkideak mendi talde moduan.

Urte osoan zehar egin daiteke eta mendi talde gehienetan urtean zehar be egiten dabe, baina urtailean bialtzen dabe federau gura dabenen lehenengo txandea talde gehienek. Arginatxek urtailaren 9an bialdu eban lehenengo txanda hori; Lamino Kirol Klubak abenduaren 28an bialdu eban lehenengo txandea, urtailaren 11n bigarrena eta 25ean bialduko dau beste bat; Gangurenek urte osoan zehar jasoten dau federetako dokumentazioa bere Galdakaoko bulegoan; Ganzabalen be urte osoan zehar federau daiteke *online* eta lokalean; Joko Alain be zabalik dago urte osoan zehar federatzeko aukerea eta Suzien Mendi Klubak urtailaren amaiera arte dauka zabalik urte hasikerako kanpainea. Zeberioko Austarri Mendi Taldeak bazkideei, federauak barne, bialtzen deustie gutun bat, gura dauanak federau ahal izateko, eta federauta dago-

zanei aldaketaren bat egin gura badabe jakinarazoteko. Urtea amaitu baino lehen izaten da.

Mendian federatzea

Federazinoko lizentziak urtailaren 1etik abenduaren 31ra arteko indarraldia eukiten dabe eta horregaitik da interesantea urtailean egitea. Mendira sarri joaten diranak federatzen dira; izan be, federatzeak istripu aseguruua dakar, eta beste mendizale batzukaz batera eginda, beste edozein aseguru baino merkeagoa izaten da. Gainera mendi talde baten egoteak, taldeak antolatutako urtekeretan parte hartzea eta mendira bakarrik ez joatea ahalbidetzen dau.

Endika Etxebarriaren argazkia, 2022ko BEGITUKO Argazki Lehiaketakoa.



bideon
ARRATIAN




Emon izena

Autoaren ordeaz, garraio seguru eta jasangarria erabili zeuk gura dozunean.

- **Unibersidadean ikasten badozu**, edo
- **65 urte baino gehiago** badaukazuz, eta
- **Arratian bizi bazara**

Gogarako garraio jasangarrirako **bideONARRATIAN** zerbitzua zuretzat da.

Zure etxeko atetik eskualdeko uriguneetara hurbilduko zaitugu edo unibersidadera eroango zaituen garraio publiko hurbilenera hurreratuko deustugu.



hurreratu egingo zaitu, zatoz

Zerbitzua aurrez aurre eskatu ahal izango dozu bulego honetan, baita **bideON aplikazioaren** bidez edo telefono honetara deituta be:

www.bideonarratian.eus

94 471 46 24

Lehendakari Agirre 11 - 48140 Igorre (Bizkaia)

IPUINA

Heriotzea ardatz *Agur, agur, agur* nagusientzako Lemoako ipuin kontaketa

Erredakzioa

Urtailaren 24an, 18:00etan, Maite Arresek eta Mau Ziemkiewiczek, Emakume Eskeletoak, 16 urtetik gorakoentzako ipuin kontaketa musikatua eskainiko dabe Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. *Agur, agur, agur* ikuskizunean batu ditue bizitza-heriotza bidaia hobeto ulertuteko inspiratzaileak diran kontakizunak.

Saio honetan, heriotzea da abiapuntua eta ez amaiera eta aukeratutako ipuin, elezahar, edo istorio honeen protagonistak kinka larrian dagoz eta euren ahots eta esperientziak kontau gura doguz berbearen eta musikearen laguntzeagaz" dinoe euren Emakume Eskeletoak webgunean.

Maite Arrese eta Mau Ziemkiewicz

Maite Arrese Artabe 1990ean hasi zan antzerkian eta 1997ra arte Maskarada Taldeagaz egon zan; ostean, JP Producciones eta Tanttaka Teatroagaz. 2003an Teatrorat sortu eban. *Kutxidazu bidea Ixabel, Zorion Perfektua, Iza-*

rren Argia, Lasa eta Zabala edota Goenkale telesailean be ikusi dogu Arrese. Egun, ipuin kontalari gisa dihardu baita yoga irakasle lanetan be.

Mau Ziemkiewicz Artabe zeanuriztarrak Varsoviako Chopin Akademian egin ebazan goi-mailako ikasketak 5 urtez. Ondoren graduondoa ikasi eban Londoneko Royal Academy-an. Han bibolin irakasle izan zan eta Musikoterapia masterra egin eban. Urteetan musikari profesional gisa, bibolinbiola irakasle eta musikoterapia lanetan ibili da.



KONTZERTUA

Leie Meie taldearen kontzertua Herriko Bentan



Erredakzioa

Urtailaren 27an, 20:30ean, kontzertua eskainiko dau Leie Meie rock taldeak.

Taldea 2018an sortu zan Bilbon bersinoak eta kantu originalak egiteko, "jarkera barrizalea, zirikatzailea, euskalduna eta andrazkoena" izateko helburuagaz.

Hasikeran lau neska ziran, baina denporeak aurrera egin ahala, batzuek taldea itxi eta beste batzuk sartu ziran. Egun, Ainhoa Berme Perezek (ahotsa), Millia Eloisa Ortiz de Pinedo Trabuduak (gitarra eta kantuen egilea), Eskolunbe Puente Matanzasek (bajua) eta Imanol Puente Matanzasek (bateria) osotuten dabe taldea.

LIBURUA

Ertzaintzaren *modus operandi*aren gaineko liburua aurkeztuko dau Ahoztar Zelaieta idazleak Zeanurin

Erredakzioa

Ahoztar Zelaietak *La Ertzaintza que viene. Tecnología de hipervigilancia y capitalismo de consultoría* liburua aurkeztuko dau urtailaren 19an, 19:00etan, Zeanuriko frontoiko tabernan Laratzue Kultur

Elkarteak antolatuta.

Ikertzaileak Txalapartaren webgunean dinoanaren arabera, "Ertzaintza zelatan egiteko tresna aurreratuak integretan dabil; gehienak industria pribaduko erraldoiek egiten ditue eta horreen artean Israelgo enpresak dagoz".

Ertzaintzaren teknifikazio prozesu honen praktikarik eztabaidagarriak be jakitera emoten ditu liburu honetan Zelaietak. "Segurtasun publikoa modernizeteak segurtasun prediktiboaren ikuspegiarantza aldatzea dakar, eta ikuspegi horrek datu sentikorren azterketea erabiltzen dau delituak egiteari aurre hartzeako" azaldu dau.

Ahoztar Zelaieta

Ahoztar Zelaieta Zamakona (Bilbo, 1972) kazetari eta kriminologoa, Egin egunkarian eta Ardi Beltza eta Kalegorria aldizkarietan egin eban lan. Artikuluak argitaratzen ditu Hordago-El Salton, eretxi zutabegile da Argian eta irrati libre-etan be parte hartzean dau, Hala Bedi eta Arraio Irratian, esaterako. Hainbat liburu idatzi ditu: *El narco oasis vasco, Zaldibar zona cero* eta *Residencias SA* tartean.

MAGIA

Magia ikuskizuna egongo da Lemoako Kultur Etxean hilaren 27an

Erredakzioa

Umerez eta magia betetako *Magia parrastan* ikuskizuna eskainiko dau Imanol Ituñok hilaren 27an, 18:00etan, Kotxepin Kultur Etxean. Ikuskizun honetan kartak, bolak eta sokak erabiltzen ditu Ituñok, agerpenak eta desagerpenak egiteko.

"Zer da, txori bat? Hegazkin bat? Superman? Ez! Magia parrastan da!" Baina... zer ete da magia parrastan? Horixe da ikuskizun honetan ikusiko duzuen, magia parrastan, eten barik, a tutiplen! Kartek, bola-

txoek, sokek, agerpenek eta desagerpenek hartuko dabe protagonismoa. Espektakulu parte-hartzailea, dinamikoa eta magikoa. Espektakulu familiarra, guraso eta seme-alabentzako aproposa!" holan aurkezten dau Ituñok ikuskizuna.

Imanol Ituño

Imanol Ituño (Bilbo, 1989) Ikusentzunezko komunikazioa ikasi eban Leioan eta film labur ugari egin ditu. 2013an, *Ilusion: un documental de la magia en Bilbao* egin eban eta 2017an, *Ramper, vida y muerte de un payaso an-*

tzezlan idatzi eta zuzendu eban. Gaur egun, batez be magiara dediketetan da jai eta ekitaldietan.



KONTZERTUA

Sei taldek kontzertua emongo dabe Kiñu Gaztetxean

Erredakzioa

Urte barri oi! izenpean kontzertua antolatu dabe Igorreko Kiñu Gaztetxean, urtailaren 27rako. Arrastiko 18:00ak aldera hasita, Oi! musika egiten daben sei taldek joko dabe: Iskanbila, Streetwise, Fito Skins, Sta Cruz, Neallta

Fola eta Ugerda, hain zuzen be. Sarrerak 12 euroan erosi daitezke Igorreko Axular Herriko Tabernan, Arrasaten eta Elorrian.

Oi! skinhead musika estiloa da, punk musikearen eboluziotik sortu zana. 1970eko hamarkadan punk musikeagaz bat ez etozen skinheadek, streetpunk-

a sortu eben, gaur egungo Oi!-aren aurrekaria.



KONTZERTUA

Lerro paraleloak diskoaren aurkezpena eskainiko dau Maria Riverok Lemoan

Erredakzioa

Urtailaren 19an, 20:00etan, aurkeztuko dau Maria Riverok *Lerro paraleloak* 2023ko zemendian kaleratutako bere bakarkako bigarren diskoa, Kotxepin Kultur Etxean.

Zazpi kantuk osotuten dabe diskoa, kantautoreak bere ibilbideko zintzoenak lez deskribiduten dituanak. Ia hiru urteko geldialdiaren ondoren, inoz baino lasaiago eta indartsuago itzuli dala dino Riverok. Atzenengo lan honek, erregistro aldaketea dakar, bide barri baten hasiera izan daitekera.

Ibilbidea

Ibilbide luzea dauka Riverok musikan, eta 2004an lehenengoz publiko aurrean jarri zanetik oin arte, proiektu ugari hartu dau parte. Bakarkako ibilbideari ekin aurretik, hainbat taldetan egon zan, Apurka, Siroka eta Hutsa taldeetan, hain zuzen be. 2017an, *Kintsukoroi* bakarka proiektua aurkeztu eban eta 2018an, proiektu honen barruan, EPa argitaratu eban eta 2020an kaleratu eban *Parentesiak* bere lehenengo diskoa bakarlarri moduan.

Antzerkia be egiten dau. 2023an, *eMcumeak* antzezlan aurkeztu eban. Lan honetako gidolaria eta aktorea da Rivero.



BERTSO-SAIOA

Ibarzabal, Arzallus, Martin, Elortza eta Lujanbio izango dira Zeanuriko bertso-saioan

Erredakzioa

Zeanuriko bertso eskoleak antolatuten dauan bertso jaialdi honek 20 urte beteko ditu aurten, eta urtero legez, momentuko bertsoari onenetakoak batuko dira herriko frontoian urte luzeetan negu gorriko saio hau galduten ez dauan publiko leial baten aurrean. Gai-emoile lanean Eñaut Intxaurrega bertsolari eta Zeanuriko Bertso Eskolako

irakasleak jardungo dau.

2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko Maialen Lujanbio txapelduna, Amets Arzallus txapeldunordea eta final haretan be egondako Alaia Martin eta Nerea Ibarzabal izango dira Zeanurin hilaren 21ean, 18:00etan. Baita Igor Elortza durangarra be, lautan Txapelketa Nagusiko finalean izan dana.

Sarrerak frontoian bertan egongo dira salgai saioa hasi baino ordu bete lehenagotik.



LIBURUA

Gorka Mola Landinek *La apostasia de las putas* eleberria aurkeztuko dau Artean

Erredakzioa

Arteko Herriko Bentak antolatuta, urtailaren 19an, 19:00etan, Gorka Mola bere eleberriaren aurkezpena egingo dau Artean. *La apostasia de las putas* nobelea autodefensan indarkeria erabilteko zilegatasunaren gaineko hausnarketea da.

Zer gertatuko litzateke, andrek, gizonezkoen biolentziari erantzuteko biolentzia erabiliko balebe? Zilegi litzateke biolentzia erabilteko autodefensa feministaren markoan? Mola galdera horreek planteetan ditu nobela baltz honetan eta biolentzia erabilten dauan autodefensa feminista bat imajinetan dau.

Argumentua hilketa matxista batetik abiatzen da. Bere gizonak Magally hiltzen dauanean, alkar babesteko zin egin eben bost andra agertzen dira eta bakotzak biktuario bat hil beharko dau. Protagonistak, indarkeria matxista eta patriarkaduen biktima diran benetako andretan dagoz inspirauta, baina eleberriak aurrera egin ahala, gero eta fikziozkoagoak dira. *La apostasia de las putas* trilogia baten lehenengoa izatea gura dau egileak.

DUNBA

Abenduaren 3a

Ainhize Bautista, Nora Barroeta, Ane Ortuondo eta Laia Zenarrutzabeitia. J.B. Eguzkitza Meabeko ikasleak

Abenduaren 3an Euskerearen Nazinoarteko Eguna da. Oso egun garrantzitsua da gure egutegian euskeraz bizi gura dogula aldarrikatzen dogun eguna dalako, egunero izan beharko leuken garrantzia emoten deusagulako egun horretan.

Igaz be Euskerearen Eguna ospatu genduan J.B. Eguzkitza Meabe eskolan. Guk eskolan abenduaren lauan ospatu genduan, hainbat ekintza eginenez. Goizean

DBHko ikasleentzat herri-kirolak antolatu genduzan, baita trikitixa eta panderoak kalejira bat egin be LH eta DBHko ikasle eta irakasleentzat.

Urtero legez txapa lehiaketa bat egin genduan, eta egun horretan irabazlearen txapea banandu eta ekitaldi bat antolatu zan; euskal jantzak jantzatu genduzan, baita bertso batzuk abestu. Amaitzeko bakotzak bere gelan kanta-bingoa eta *escape room* bat egin eban, euskal abesti eta euskal galderakaz. Oso garrantzitsua da Lemoako eskolan ekitaldi eta egun hau ospatzea euskerea bultzatzeko eta eremu guztietara zabalduteko.



AGENDA

URTAILAK 16
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

2024ko zezeilaren 3ra arte, merkeago egin ahal dira erosketak. 20 euroan erositako bonuak 25 euroko balioa eukiko dau. Komertzioak: Aliprox, Andikoa harategia, Gauzak, Arantza Zamalloa farmazia, Estankoa, Denda Barri fruta-dendea, + Ke PAN okindegia eta Vade retro ule-apaindegia.

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

ARRATIA

Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntzako *Osasun mentala eta generoa* eta *Autodefensa feminista* tailerretarako izena emon daiteke Arratiako Udalen Mankomunitateko webgunean, 94 631 17 17 eta 688 627 393 telefonoetan edo udaletxeetan. *Osasun mentala eta generoa* zezeilaren 1ean hasiko da eta Diman izango da. *Autodefensa feminista* zezeilaren 2an hasiko da Zeanurin.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Martiazaren 16an izango dan Kolazino mendi lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik sportsmaniac.com helbidean martiazaren 10era arte.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Hilaren 31ra arte, Argazki Lehiaketara bialdu daitezke argazkiak harrera.dima@bizkaia.org helbidera.

IGORRE

Astelehenetik eguenera liburutegia zabalik 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

08:00etatik 22:00etara, ikasgela eguenera zabalik Kultur Etxean.

LEMOA

Bizikletak garbitzeko txartela berraktibatzeako kiroldegira joan behar da. Astelehenetik barikura 09:00etatik 21:00etara eta zapatu, domeka eta jai egunetan 09:00etatik 13:00etara.

Hilaren 31ra arte, herriko merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresek Lemoa Ureztatzen alkarteko kide izateko kanpaina. Izena emon lemoaureztatzen@gmail.com helbidean.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

08:00etatik 21:00etara, ikasgela eguenera Kotxepinen zabalik.

ZEANURI

Batxilera eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik eguenera. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

UBIDE

Maiatzaren 11n izango dan Ubidestroi Trail mendi lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik kronoak.com helbidean.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

19:00etan, Euskera Batzordearen batzar irekia, euskera ikasteko dirulaguntzak arautzen dituan ordenantzea landutako udaletxean.

URTAILAK 17
AREATZA

19:00etan, Berbalagunek antolatuta, argazkiak egurretan inprimiduten ikasteko *Transfer* tailerra udaletxean.

ARTEA

18:00etan, *Contra la banalización del feminismo* liburuaren lanaketako saioa Maria Gorosari egileagaz. Kultur Etxean.

19:00etan, Greba feminista orokorraren ebaluaziorako asanblada irekia Kultur Etxeko Andran Gelan.

LEMOA

18:00etan, Euskera Plan Estrategikorako gogoeta mahaia gazteakaz. Kotxepin Kultur Etxean. Izena <https://labur.eus/lemoalanmahaiaik> helbidean emon.

18:00etan, indarkeria matxisteari aurre egiteko lehen herri protokoloa sortzeako lan saioa J.B. Eguzkitza Meabe IPIn.

ZEBERIO

19:00etan, Udal Antolakuntzaren batzar irekia, ikasgelaren funtzionamentuari buruzko ordenantzea landutako udaletxean.

URTAILAK 18
ZEBERIO

18:30ean, 2024ko aurrekontu parte-hartzaileak landutako bilera irekia plazako Hogarrean.

URTAILAK 19
AREATZA

Goardia Parke Naturalak antolatuta, talo tailerra 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Izena alde aurretik emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

ARTEA

18:00etatik 20:00etara, hilaren 26ra arte, Jubiladu Elkarteko 2024ko kuota ordaintzea Kultur Etxean.

19:00etan, *La apostasia de las putas* liburuaren aurkezpena Gorka Mola idazleagaz Herriko Bentan.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

LEMOA

20:00etan, Maria Riveroren *Lerro paraleloak* diskoaren aurkezpen kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

19:00etan, Ahoztar Zelaietaren

La Ertzaintza que viene. Tecnología de hipervigilancia y capitalismo de consultoría liburuaren aurkezpena idazleagaz frontoiko tabernan.

URTAILAK 21
IGORRE

17:00etan, zinea, *Kina y Juk*; 19:30ean, *Ocho apellidos marroquíes* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

18:00etan, bertso jaialdia. Bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Amets Arzallus, Alaia Martín, Igor Elortza eta Maialen Lujanbio. Frontoian.

URTAILAK 24
IGORRE

10:30ean, Berbalagunek antolatuta, argazkiak egurretan inprimiduten ikasteko *Transfer* tailerra euskaltegian. Izena alde aurretik emon arratia_berba@aek.eus helbidean.

LEMOA

18:00etan, Maite Arreseren *Agur, agur* nagusientzako ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

URTAILAK 25
LEMOA

10:00etan, Euskera Plan Estrategikorako hezkuntza eta familia transmisioaren inguruko gogoeta mahaia Kotxepin Kultur Etxean. Izena <https://labur.eus/lemoalanmahaiaik> helbidean emon.

URTAILAK 26
AREATZA

21:30ean, Itzek eta Norman Bates taldeen kontzertua Laminetxe Gaztetxean.



ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa Karmele Jaioren *Maitasun kapitala*. Idazlea bertan egongo da. Kultur Etxean.

URTAILAK 27
ARTEA

20:30ean, Leie Meie taldearen kontzertua Herriko Bentan.

DIMA

Eingo jai. 14:30ean, baba jana Artaungo Azurmendi jatetxean; sopresak;

parrandea eta erromeria plazako frontoian. Bazkarirako erreserbak 94 673 64 80 telefonoan egin behar dira.



urtarrilak 27
12:00 elkarretarata LEMOAN (Atxetako Plazan) • Kantan ta Dantzan KALEJIRA
14:30 BABA JANA AZURMENDI JATETXEAN
23H. DIMA (Artaun) • sopresak • parranda • ERROMERIA DIMAko Plazako frontoian



bazkarirako
ERRESERBAK 94 673 64 80

IGORRE

18:00etan, Iskanbila, Streetwise, Fito Skins, Sta Cruz, Neallta Fola eta Ugerda taldeen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

Eingo jai. 12:00etan, danok alkartu Atxetako plazan eta kantuan eta jantzan kalejirea.

18:00etan, Imanol Ituñoren *Magia parrastan* ikuskizuna Kotxepin Kultur Etxean.

URTAILAK 28
ARTEA

Goardia Parke Naturalak antolatuta, Artea ezetuten Jose Ignacio Ortuzarren eskutik. Izena alde aurretik emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Wonka*; 19:30ean, *El maestro que prometió el mar* Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 1
DIMA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Osasun mentala eta generoa* tailerra eskolan.

Ttantaka Teatroa konpainiak
Esnearen kolorekoa antzezlan
dakar Igorrera

Urtailaren 20an, 20:00etan, egongo da Igorreko Lasarte Aretoan Nell Leyshonen *Esnearen kolorekoa* antzezlan. Fernando Bernuesen zuzendaritzapean, Joseba Apaolaza, Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Aitziber Garmendia, Jon Olivares eta Jose Ramon Soroiz aktoreek taularatuko dabe Leyshonen eleberraren antzerkirako egokitzapena.

Bere eleberrian Leyshonek, "edertasun tragiko batez, mikrokosmos ikaragarri bat irudikatu dau, personaia bereziz bete; hori guztia, urtaroen eta baserriko lanen konpasean isurtzen dan ingurune bukoliko batez inguratua".

Sinopsia

Mary, bere familiagaz 1830eko nekazal giroko Ingalaterrako baserri baten bizi da. Ulea esnearen kolorekoa dauka eta hanka baten arazo fisiko batez jaiotako. Baina, familiaren kondanatik iges egitea lortzean dau, bikarioaren andrea jagoteko neskame moduan lan egitea bialtzen dabenean. Orduan izango dau irakurten eta idazten ikasteko aukerea. Liburuetan marra baltz pila bat besterik ez ikusteari itxiko deutso. Itzalen mundua ixten dauan neurrian, argiak oindino itsugarriagoak izan daitezkeza ohartuko da, eta horregaitik, Maryri bere istorioa kontetako ahalmena baino ez jako geratuko.



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

TXOKORAKO MAHAIK

SALTZEAN DIRA

Mahaien neurriak: 2,80 metro luzeera, 90 cm zabalera eta 8,50 cm lodiera. Prezioa: 300 euro. Eserlekua, 2,80 eta 3 metrokoak, 50 euro bakoak. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua.

Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

LANA

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Esnearen kolorekoa** antzezlanerako.


Zuriñe San Eduardo (Arantzazu)
Itziar Gurtubai (Igorre)



2

Lemoako Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Maria Riveroren** kontzerturako.

Amaia Goti (Dima)
Kepa Perez Urraza (Zeberio)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
1976
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA
94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. beheka - Igorre (Bizkaia)

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

begitu
eus

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zikutzekutze@hotmail.com

begitu
eus

begitu

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarreak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarrea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus